

Baserria: Erabilera Araudi Orokorra

Ikastolako Artezkaritza Kontseiluak 2020ko urrian onartutako Añabitarreko Baserriaren Erabilera Araudi Orokorra ezagutu eta errespetatu behar du elkarte gastronomikoa erabiltzen duen Orereta Ikastolako bazkide orok.

Lehen atala: Añabitarre baserria

Baserria

- Gogoratu, mesedez, ikastola batean gaudela. Denen ardura da guztia txukun mantentzea gero bertan haurrak ibiltzen baitira.
- Añabitarreko baserria familia bolondresek kudeatzen dute. Lantaldera Orereta Ikastolako edozein bazkide batu daiteke. Erabilerarekin lortzen den dirua, Baserriko mantentze lanetarako eta bertan hobekuntzak egiteko inbertitzen da.

Bazkideak

- Baserriko erabiltzaile arduradun bezala onartuak izango dira:
- Orereta Ikastolako bazkide titularrak eta hauen senar-emazte edo bikotekideak. (Seme-alaba eta gurasoak ez dira Baserriko bazkide gisa onartuko).
- Orereta Ikastolako langileak.
- Orereta Ikastolak, dagokien organoen erabakiz, horrela izendatutako pertsonak.
- Bazkide izateko derrigorrezkoa da 18 urteak beteak izatea.
- Bazkideak Baserrira eramandako gonbidatuen jokabidearen arduradun eta erantzule izango dira.

Bigarren atala: araudia

Erreserbak

- Erreserba bazkideak egin beharko du, horretarako zehaztutako bideak jarraituz.
- Bazkideak giltzik ez badu, horretarako jarritako bideak jarraituz jaso beharko du.
- Baserriko giltza ezin da beste pertsonekin (bazkide edo ez bazkide) partekatu.
- Giltza erreserba eguna baino gehienez ere astebete lehenago jaso ahal izango da.
- Giltza erreserba eguna baino gehienez ere astebete beranduago bueltatu ahal izango da; ez da nahitaezkoa izango bazkideak itzultzea.

Baserriko egonaldia

- Bazkideak une oro egon beharko du Baserrian, bere gonbidatuak bertan dauden bitartean. Bere taldetik lehena izango da sartzen eta azkena ateratzen.

- Ikastolako eremuko atea itxita mantenduko da, bereziki Ikastolako bulegoa itxita dagoenean (lanegunetan, 17:00etatik aurrera; jaiegunetan eta oporretan, egun guztian zehar).
- Txakurrik ezin da sartu; ez Baserri barrura, ezta Ikastolako eremu osora ere.
- Erretzea debekatuta dago Baserri barruan zein Ikastolako eremu osoan.
- Zigarro-puntak lurrera botatzea erabat debekatuta dago eta falta larritzat hartuko da.
- Baserria txukun mantenduko da beti:
- Plater, ontzi, edalontzi, mahai tresna eta gainerakoak ondo garbitu, lehortu eta bere tokian jasoko dira.
- Erabilitako mahai eta aulkiak joan aurretik garbitu egingo dira.
- Erratza pasako da erabilitako gunean eta haren inguruan.
- Aulkiak mahai gainean utziko dira Baserria garbitzea errazteko.
- Mahai eta aulkiak tokiz mugitu eta kalera atera ahal izango dira. Egonaldia bukatzean beren tokira bueltatuko dira beti.
- Sukaldea jaso eta garbitu egingo da erabili ondoren.
- Baserria eta ingurua txukun mantendu eta zainduko dira.
- Sortutako zaborra norberak eraman behar du eta dagokion zabor-ontzietara bota (ez paperontzietara).

Elkarbizitzarako arauak

- Ez da gainerako bazkide zein gonbidatuak gogaituko dituen portaera eta jarduerarik onartuko (musika altua, zarata, etab.).
- Beste bazkide batek hala eskatuz gero, musika itzaltzea derrigorrezkoa izango da.
- Adin txikikoen behar bezalako portaeraren jarraipena egingo da.
- Ondoko bizilagunekin ere elkarbizitza arauak berdin zaindu beharko dira.
- Ikastolako instalazio, ekipamendu, material zein beste edozein motako aktiboen hondatze, puskatze, lapurtze edota kalteen arduraduna bazkidea izango da. Abisua pasa beharko dio Baserriko lantaldeari. Abisurik pasa ezean, harek ordaindu beharko du eta falta larri gisa hartuko da. Ordaindu ezean, falta oso larria izango da.
- Erabiltzaileen batek beste norbaitek portaera desegokia izan duela irizten badu, Baserriko lantaldeari jakinarazi diezaioke.

Kontsumoak

- Bazkide bakoitzak kontsumo orria bete behar du. Orriaren goialdean eskatzen diren datu guztiak adieraziko dira (data, bazkidearen izena, telefonoa eta posta elektronikoa jartzea beharrezkoa da).
- Kanpoko edari guztiengatik deskortxea ordaindu beharko da (unitate bat botilako).
- Erabiltzaile guztiak ordaindu behar dute Baserriaren erabilpenagatik, haurrek zein helduek. Horretarako, kontsumo orrian zehaztu behar da erabiltzaile kopurua.
- Kontsumo-faltak. Baserria kudeatzeko lantaldeak gainbegiratzen ditu astero kontsumoak. Gerta liteke zurekin harremanetan jarri behar izatea hutsegiteak dauden asteetan. Ez da inor

susmopean jartzen; asteko erabiltzaile guztien kolaborazioa ezinbestekoa da kontuak kudeatzeko garaian.

Baserritik joatean

- Ziurtatu atea eta leihoak ongi itxita daudela; argiak itzali, gasa itxi eta su eta labeen mandoak iraungita daudela.
- Baserriko atea giltzaz itxiko da, baita Ikastolako eremuko hesiko atea ere (ondo bultzatu eta gero zarrailari buelta eman behar zaio).

Xehetasun gehigarriak

- Egoera bereziei aurre egiteko, Baserriaren kudeaketa taldeak (Ikastolako dagokion organuaren oniritziarekin) xehetasun gehigarriak onartu ahal izango ditu.
- Gehigarri horiek araudi honen osagarri izango dira eta bertako arauen balio eta ondorio berberak izango dituzte. Indarrean sartzen direnean, bazkideei jakinaraziko zaizkie Ikastolako ohiko informazio bideen bidez. (Adibidez, 2020ko COVID-19 pandemiari aurre egiteko protokoloa, etab.).
- Dagoeneko 22 urte igaro dira Kilometroak azken aldiz Errenteria-Oreretan egin zenetik. Horrek esan nahi du belaunaldi oso batek ez duela jaia barnetik bizi izan. Aurreko bi Kilometroetan piztutako ilusioa eta elkarlana guraso gazte hauengana eraman nahi dugu.

Hirugarren atala: faltak eta zigorrak

Orokorrean, hiru mailatako arau-haustek eta horiei dagozkien zigorrak ezartzen dira:

Falta arinak

- Besterik zehaztu ezean, araudiko edozein arau-hauste, falta arina izango da.
- Lehen faltak, abisua suposatuko du.
- Arau bera bigarrengoz, edo hiru arau-hauste arin pilatzea falta larritzat hartuko da.

Falta larriak

- Bazkideak ezin izango du Baserria erreserbatu ezta erabili ere (beste bazkide batek gonbidatuta izan arren) urtebeteko epean. Falta larria egin duela jakitera ematen zaion unean sartuko da indarrean zigorra.
- Bazkideak zigorra beteko ez balu, falta oso larritzat hartuko da.
- Bazkideak bigarren falta larria egingo balu, falta oso larritzat hartuko da.

Falta oso larriak

- Bazkideak ezin izango gehiago Baserria erreserbatu ezta erabili ere (beste bazkide batek gonbitatua izan arren).

Faltak Baserriko kudeaketa taldearen batzarrak erabakiko ditu, bazkidea entzun ondoren. Erabakiari helegitea jar diezaiokoe bazkideak Artezkaritza Kontseiluan.

Baserri: Normativa General de Uso

Todo socio o socia de la Ikastola Orereta que utilice la sociedad gastronómica deberá conocer y respetar el Reglamento General de Uso de Añabitarte Baserria aprobado por el Consejo Rector de la Ikastola en octubre de 2020.

Primera sección: Añabitarte Baserria

Baserria

- Recordad por favor que estamos en una Ikastola. Es responsabilidad de todos mantener todo ordenado ya que el alumnado también suele utilizar las instalaciones.
- Añabitarte Baserria está gestionado por familias voluntarias. Al grupo de trabajo se puede sumar cualquier socio o socia de la Ikastola Orereta. El dinero obtenido se invierte en mantenimiento y mejoras de Baserria.

Socios o socias

- Serán admitidos como usuarios o usuarias responsables de Baserria:
 - Los socios y socias titulares de la Ikastola Orereta y sus cónyuges o parejas. (No se admitirán como socios o socias de Baserria los hijos e hijas y padres o madres).
 - Los trabajadores y trabajadoras de Orereta Ikastola.
 - Personas así designadas por la Ikastola Orereta, por acuerdo de los órganos correspondientes.
 - Para ser socio o socia es necesario tener 18 años cumplidos.
- Las y los socios serán responsables del comportamiento de los invitados e invitadas.

Segunda sección: reglamento

Reservas

- La reserva deberá ser realizada por el socio o socia, siguiendo los canales establecidos.
- Si el socio o socia no tiene la llave, deberá recogerla por los canales establecidos.
- La llave de Baserria no se puede compartir con otras personas (socios/as o no socios/as).
- Se podrá recoger la llave con una antelación máxima de una semana a la fecha de reserva.
- La devolución de la llave podrá realizarse como máximo una semana después de la fecha de reserva, no siendo obligatoria la devolución de los socios o socias.

Estancia en Baserria

- El socio o socia deberá permanecer en todo momento en Baserria mientras sus invitados estén presentes. Será el primero en entrar y el último o la última en salir.

- Se mantendrá cerrada la puerta del recinto de la Ikastola, especialmente cuando la oficina de la Ikastola esté cerrada (laborables a partir de las 17:00; festivos y vacaciones durante todo el día).
- No se permite el acceso de perros al interior de Baserria ni a toda la zona de la Ikastola.
- Está prohibido fumar tanto dentro de Baserria como en toda la zona de la Ikastola.
- Echar las colillas al suelo está totalmente prohibido y se considerará falta grave.
- Baserria se mantendrá siempre en buen estado:
 - Los platos, envases, vasos, utensilios de mesa, se limpiarán, se secarán y se guardarán en su lugar.
 - Las mesas y sillas utilizadas se limpiarán antes de que el socio o la socia se vaya.
 - Se pasará la escoba en la zona utilizada y sus proximidades.
 - Las sillas se dejarán encima de la mesa para facilitar la limpieza de Baserria.
 - Las mesas y sillas se podrán mover y sacar fuera. Al finalizar la estancia se colocarán otra vez en su sitio.
 - Una vez utilizada la cocina se recogerá y se limpiará.
 - Se mantendrán y se conservarán bien las instalaciones de Baserria y sus alrededores.
 - La basura generada debe ser recogida por uno mismo o una misma y depositada en los correspondientes contenedores (no en las papeleras).

Normas de convivencia

- No se admitirán comportamientos y actividades que molesten al resto de socios o socias o invitados o invitadas (música alta, ruido, etc.)
- El apagado de la música será obligatorio a petición de otro socio o socia.
- Se hará seguimiento del correcto comportamiento de las y los menores de edad.
- Las normas de convivencia deberán ser igualmente cuidadas con los vecinos colindantes.
- El socio o la socia será responsable del deterioro, rotura, robo o daños de las instalaciones, equipamientos, materiales o cualquier otro tipo de activos de la Ikastola. Avisará al grupo de trabajo de Baserria. En el caso de que no se produzca el aviso, éste deberá abonar el importe correspondiente y se considerará falta grave. La falta de pago será muy grave.
- Cualquier usuario o usuaria que considere que ha habido un comportamiento incorrecto por parte de otro u otra, podrá comunicarlo al equipo de trabajo de Baserria.

Los consumos

- Cada socio o socia deberá rellenar una hoja de consumo. En la parte superior de la página se indicarán todos los datos que sean necesarios (fecha, nombre del socio, teléfono y correo electrónico).
- Por la bebida traída de fuera se deberá pagar el descorche (una unidad por botella).
- Todos los usuarios e usuarias deberán pagar por el uso de Baserria, tanto niños o niñas como adultos o adultas. Para ello, en la página de consumo se especificará el número de usuarios.
- Faltas de consumo. Semanalmente los consumos son supervisados por el equipo de gestión de Baserria. Es posible que se tengas que poner en contacto contigo durante las semanas en las

que haya faltas. Nadie se hace sospechoso, la colaboración de todos los usuarios de la semana es imprescindible a la hora de gestionar las cuentas.

Al salir de Baserría

- Asegurar de que las puertas y ventanas estén bien cerradas, apagar las luces, cerrar el gas y apagar los mandos de los hornos.
- La puerta de Baserría y la puerta de la valla de la zona de la Ikastola se cerrarán con llave. Esta segunda hay que empujarla bien y darle la vuelta a la grieta.

Detalles adicionales

- Para hacer frente a situaciones especiales, el equipo gestor de Baserría (con el visto bueno del Órgano correspondiente de la Ikastola) podrá aprobar detalles adicionales.
- Dichos cambios adicionales tendrán el mismo valor y efectos que las normas especificadas en el presente Reglamento. Una vez entren en vigor se comunicarán a los socios o socias a través de los canales habituales de información de la Ikastola. (Por ejemplo, protocolo contra la pandemia COVID-19 2020, etc.)

Tercera sección: faltas y sanciones

En general, se establecen tres categorías de infracciones y sus correspondientes sanciones:

Faltas leves

- Salvo que se especifique lo contrario, se considerará falta leve cualquier infracción reglamentaria.
- La primera falta supondrá un aviso.
- La infracción de la misma norma por segunda vez o la acumulación de tres faltas leves, se considerará falta grave.

Faltas graves

- El socio o socia no podrá reservar ni utilizar Baserría, aunque haya sido invitado por otro socio o socia, en el plazo de un año. La sanción entrará en vigor en el momento en que se le notifique la comisión de la falta grave.
- El incumplimiento por parte del socio o socia de la sanción será considerado como falta muy grave.
- Si el socio o socia comete una segunda falta grave se considerará falta muy grave.

Faltas muy graves

- El socio o socia no podrá reservar ni utilizar Baserría (aunque haya sido invitado por otro socio o socia).

Las faltas serán acordadas por el grupo de trabajo de Baserria, previa audiencia del socio o socia. El sancionado o sancionada podrá recurrir la decisión ante el Consejo Rector.